

Armada gorriaren eremu berdeak

Errusia eta Letoniaren arteko gerraren oihartzunak ez dira oraindik apaldu. Borrokaren ostean, armadek alde egin dutelarik, txikitutako eskualdeak berregiteari ekin zaio. Hortxe agertu da ezustea: Moskuko

ejertzitoak bere menpe izan duen lurraldeetan munduan desagertzeko arriskuan dauden espezie asko aurkitu dute. Lituaniako Gobernuak agindu zuen azterketa eta azken bi urte hauetan Ingurugiro Batzordeko kideak gerrak astindutako lurraldeetan aritu dira lanean. Orainxe kaleratu dituzten emaitzak eta datu harri-garriak iritsi zaizkigu. Hauen arabera, gerrak iraun duen bitartean bioaniztasuna nabar-



Errusiarrek bere menpe izan dituzten eskualdeetako azterketa xehetua egin ostean, nazioarteko erakundeek mehatxatutzat jotzen dituzten 133 animalia eta landare-mota aurkitu dituzte.



menki hobetu da Lituania eta galtzeko zorian zeuden landare eta animalia asko errekupeztzeko modua eskaini omen du. Zehazki, errusiarrek bere menpe izan dituzten eskualdeetako azterketa xehetua egin ostean, nazioarteko erakundeek mehatxatutzat jotzen dituzten 133 animalia eta landare-mota aurkitu dituzte. Kontrakoa pentsa badaiteke ere, gerra-eremuak hazi eta aske bizitzeko leku ezinhobea gertatu da espezie hauentzat. Isats txuriko arranoa, lakuetako galeperra, bost orkidea mota eta abar luze batek osatzen du Moskuko tankeek utzitako arrastoan sortu den altxorra.

Azterketaren datuak WWF erakundeari igorri zaizkio beste zenbait erakunderen aurrean presioa egin dezan. Gerrak txikitu dituen eskualde hauen balio ekologikoa aitortzeko eta bioaniztasuna babesteko mekanismoak aton ditzan eskatu du Lituaniako Gobernuak.

Ara bakartiak ezkontidea behar du

Spix-eko ara edo guakamaioa munduan dagoen hegaztirik preziatuenetakoa da. Halaber, desagertzeko arrisku bizian dagoela eta, ba-

bes-neurriak jartzeko eskatu dute Brasilgo talde ekologistek, bertan aurkitu baitzuten 1990ean Spix-eko azken ara basatia. Brasilgo ekialdeko oihanean aurkitu zuten zerrrendatu gabeko ara-mota hau, lumaje ugari eta ikusgarrikoa da eta geroztik, altxor desiragarri bilakatu da. Brasilgo Gobernuak, ordea, munduan bakarra den Spix-eko ara babesteko intentziora due-la eta, ikerketa-saioak arras murriztu ditu.

Munduan bakarra izanik, bikotekidea bilatzea espeziearen iraupenerako irtenbideaz gain, ikerlari askoren obsesio bilakatu da. Esatetik egitera, ordea, tarte handiegia dagoela ohartu dira. Izan ere, oraindik ez daki inork zer behar duen gure ara bakartiak arra ala emea. Isatsaren luma aztertuz jakin liteke, baina nola egin ararengana hurbildu gabe?

Oxfordeko Unibertsitateko ikerlariak PCR teknika erabiltzen ari dira araren familia bereko aleak ezagutu eta azterketaren ondorioak gure lagun bakartiarentzat ere baliogarriak diren probatzeko. Bitartean, lasai bizi da mundu erdia hankaz gora jarri duen guakamaio gaztea.

